



«Ez aurkeztu zuen egunean, duela bi urte. Etsu gisara bizi zuen hori.

ahalegintzea da. Esperientziagatik diot nik. Ikerketa asko egin dira orain, eta hori pozgarria da herriari errealitatea itzultzen diotelako. Ezagutza falta horregatik bada oraindik jendea pentsatzen duena Iruñetik hegoaldera ez dela sekula euskara hitz egin, eta hori penagarria da, oso arriskutsua».

JAKINMINA

«Betidanik gai ilunak gustatu izan zaizkit, zalantzan dagoena argitzea, saiakera horretan hanka sartzeko arriskua badago ere. Nafarroako nortasunaren aurkako erasoak ikaragarriak izan dira, eta erasotzaileen egitekoa beti izaten da zanpatu nahi duten nortasuna ezkutatzea. Herrietako artxiboetan, herri izenetan, aitona-amonen usadioetan ikasi dudana ez dut Espainiako historiaren liburuetan topatu. Jendeak piztu dit jakinmina, eta haiek ez dute historia ofiziala osatzen».

HISTORIA

«Nire zeregina mundu honetan euskarak Nafarroan izan duen garrantzia historiaren bitartez erakustea izan da. Erdi Aroan jatorriz nafarrak ziren guztiak euskaldunak ziren. XVII. mendean jendea sinetsita zegoen euskara zela nafarren hizkuntza naturala, berezkoa eta partikularra. Porrota XVIII. mendean hasi zen, Carlos III.aren dekretuen ondorioz, hizkuntzaren zentralismoa ezartzen duenean. Errepresioa izugarria bizi izan du orduz geroztik. Espainiako gerra, Frankismoa, eta orain, ez dago ukatzerik atzera

IRITZIA

Asisko Urmeneta ■ MARRAZKILARIA

Osasuna enkomendatzeko

Egun ere berandu noa unibertitate libertaria; plaza zeharkatzean 5ak jotzen ari dira hiri zaharreko elizetan, eta makurrena da nik daukadala giltza. Honezkero ikasle gaizoak atarian dituzket zain. Bero da bederen (Ni hasteko izerdi uretan nator). Metroketa lehenago hiru ikasleak ageri dira; 70ak eginiko gizon politak atorra zuri eguzkitan. Astero astero biltzen gara mintza praktika egiteko, eta apezpikuaz gaizki errateko. Jose Mari oinez etortzen da Donibane auzotik, Jorgerekin batera gehienetan. Pablori txirrina jotzen diote plazan, eta britainiar puntualitatez plantatzen dira hiruak Katatzun edo Zaldiko Maldikon, nire goait. Noizbehinka Euskararen ispi-luan ezagutzen dute eskualdeko hitzaren bat, eta halakoetan bisaia argitu egiten zaie: «Artaxoan *'me has cunchau'* erraten genuen, *'kutsatu nauk'* horren partez». «Vianako haurtzaiena genuen *'el cuarto de las orzayas'*», eta halako.

Gobernanteen gaia suertatzen bada, berriz, sumindura: oraiko tiranoen genealogiak eta krimenak aletzen dituzte banan bana, mamut-haren gogoaz. Horrelakoetan, «eta hau erderaz» prologatu ohi dute, barne-barneko afruntu zaharrak azaldu beharrez. Katixima zulatuan pistola gorderik zeukan apez karlistarena kontatutakoan, bigarren batek bota du: «Ez erran horrelakorik, fedea gal eraziko baitidazu!»; eta hirugarrenak: «Badu aspaldi nik galdua dudala; eta atxikitzen zuen, alu harek!». Ikasturtea finitzearekin, txangoan abiatu izaten gara: Arkue-ta, Ioar, Lanako ikazkinak, Viana, Kodes, San Gregorio Ostiarra... Azken honetaz Jose Mari: «Kpera arras egoera txarrean dago, baina beharrik Vianako Printzea erakundeak ez du jakin, honez gero goitik behera izorratuko baitzuen!».

Eta gainera ordaindu nahi izaten zidaten!!! Esker mila zuri, Jose Mari.

itzulera egin dugula arau erre-presiboen bidez».

EUSKARAREN LEGEA

«Euskararen Legeak ez dauka oinarri historikorik. Neurri politikoa da guztiz, euskal eremua ahalik eta gehien murrizteko. Eremu misto txiki bat eta ia Nafarroa osoa erdalduna. Ez dauka ezer positiborik. Batzuek erranen dute eremu bat ziurtatzen dela, bederen, hor daudela errotuluak, lehenago deus ez zegoela. Baina hori dena zergatik egiten da, legeagatik edo herriaren presioagatik?».

EUSKARAREN DEKRETUA

«Frankismo garaitik ez dugu Administrazioan Euskararen erabilera arautzeko foru dekretua bezain neurri gogorrik eza gutu. Nafarroako Gobernuak alor horretan erakutsitako jokatibidea lotsagarria izan da; kulturaren kontra dihardu UPNk. Euskararen aurrera urratsak izutu egin ditu eskuin aldekoak, eta neurri gabeko errepresioa hasi dute».

MIGUEL SANZ

«*La conquista de Navarra* liburua irakurtzea eskatuko nioke».

ETNOGRAFIA ETA TOPONIMIA

«Herrien izendegien altxortegia bat-batean aurkitzea eta jendeen usadioak neureak egitea izan da bizitza honetako pozetako bat. Ez ditut alferrik igaro herriz herri eta mendian gora egindako une kontaezinak».

SARIAK ETA OMENALDIK

Harritu egiten naute eta neure onetik atera, eguneroko lanetik



JOXE LACALLE

BESTE AURKEZPEN BAT. Joseba Intxausti eta Goio Monreal alboan dituela, Navarra, Guipuzkoa y el euskara. Siglo XVIII aurkezten.

aldentzen nautelako. Nahiago dut betiko normaltasunean lanean jarraitu, eta ez horrenbeste aitortpenek sortzen duten zalapartarekin bizi.

JOXEMIEL BARANDIARAN

«Gure lan ereduaren aita izan da, pazientziaren maisua, zorrotza baina oso maitekorra. Irakasle eta laguna izan nuen. Haren jarraitzaile sutsua naiz».

BERNARDO ESTORNES LASA

«Gutxi egongo dira Nafarroaren nortasunaren alde bera bezala aritutakoak. Langile amorratua zen, ikertzaile nekaezina, eta baikorra».

GAZTEAK

«Kezkatuta nago gaurko gazteekin. Ez zaie axola zaharrek pentsatzen dutena, eta ez dakite zaharrek beraiekin eramango dutela herri honen historia puska handia. Mende batean mila-ka urtetan baino gehiago aldatu gara, eta laster ez da atzokoaren izpirik egongo. Noiz esnatuko dira gazteak?».

ETORKIZUNA

«Euskararen aurkako botere politiko sozialen indarra eta baliabideak garrantzitsuak dira. Etorkizunera begira, lan egiten jarraitu beharko dugu, eta denborarekin aurrera goazen, gutxinaka bada ere. Indarren arteko aldea ikusita beldurra dut, baina inoiz ez bezala itxaropenerako arrazoiak badira, asko baitira euskararen alde borrokatzen direnak».

ZAMBRA

espacio festivo cultural / fiesta eta kultura espazioa

Ostirala, urriak 4
MAC JEARA'S bere Jazz Dixie musikarekin.
 Ordua: 24:00. Prezioa: 5 €

Larunbata, urriak 5
MANU DIBANGO eta RAY LEMAn
AURKEZPENA
 Soul Makossa, Afrikako musika.
 Biak punta-puntakoak munduko musiketan eta eritmo elektronikoetan.
 Ordua: 24:00. Prezioa: 20 €

Ateak irekiera: 22:00.

ZAMBRA gaua 22:00etan hasten da. Badira era askotariko ogitartekoak, garagardoak, izozkiak, kafea; eta horrekin batera, Martin Audio soinu izugarria, irudiak pantaila erraldoietan, argiztapen ikusgarria eta dj saioak...

Kontzertuen ondotik, ZAMBRA musikarekin segituko dugu goizeko 6ak arte
SARRERAK dagoeneko salgai. Begiratu gure web orrian: www.zambralesaka.com